

Bisiten baldintzak

Araudia

B

Bisitari jaun-andre agurgarriok:

Cristóbal Balenciaga Museoa juridikoki fundazio moduan sortutako erakunde publikoa da, eta haren helburua da Getarian jaiotako Cristóbal Balenciaga Eizaguirre jostun-sortzaile jaunak pertsona eta pertsonalitate gisa modaren munduan, goi-mailako joskintzan eta jantzien diseinuan egindako ekarpen artistiko, tekniko eta enpresarialaren garrantzia sustatu, hedatu eta indartzea.

Museoak zure lankidetzara behar du, ondasun kulturalen kontserbazioa, pertsonen segurtasuna eta guztion bisitaren kalitatea bermatu ahal izateko.

Horregatik, Zuzendaritzak honako araudi hau idatzi du Cristóbal Balenciaga Museoko irekiera ordutegi ohikoaren nahiz ezohikoaren barruan egindako bisiten baldintzak arautzeko. Araudi hau eraikinerara bildumak bisitatzera edo bertako jardueretan parte hartzera etorritako pertsona guztiei aplikatuko zaie.

Finkatutako arauak betetzen ez dituzten bisitariei horiek bete behar dituztela gogorarazi ahal izango diete Museoko langileek, eta, oharrei jaramonik egin ezean, bisita behar bezala garatzea bermatzeko neurri egokiak hartu ahal izango dituzte.

Eskerrik asko zuen lankidetzagatik.

Sarrera

-
1. Sartu ahal izateko, sarrera baliozko bat erakutsi beharko zaie Museoko langileei, sartzeko kontrolean edo langileek hura eska dezaketen bisitako beste edozein unetan.
 2. Sarreraren prezioa eta Museoko zerbitzu nahiz jardueren doakotasunaren eta murrizketen baldintzak Cristóbal Balenciaga Fundazioaren Patronatuak onesten ditu, eta Museoan bertan eta Museoaren [webgunean](#)⁷ era argian jakinarazten dira.
 3. Museoko bisita doakoa da itxi aurreko azken orduan zehar, denboraldi bakoitzeko ordutegiaren arabera, erabakita dauden doako gainerako sarrerez gain.
 4. Museora sartzeko onartutako azken sarrera denboraldi bakoitzean erabakitako itxiera ordua baino 30 minutu lehenagokoa izango da. Taldeak, berriz, 60 minutu lehenago sartu ahalko dira beranduenik.
 5. Doako sarreraren edo sarrera merkeagoen onuradunek baliozko egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko dute leihatilan.
 6. Sarrera baliozkotu ondoren, ezin izango da berriz sartu sarrera horrekin.
 7. Museoko sarrera pertsonala eta besterenezina da.
 8. Hurrek heldu baten laguntza beharko dute bisita osatzeko. 14 urtetik beherako adin txikikoek ezingo dute bakarrik sartu.
 9. Auditoriumera edo erakusketetarako ez diren beste espazioetara sartzeko baldintzak kasu bakoitzean finkatuko dira, jardueren ezaugarrien eta ordutegiaren arabera, eta behar den moduan jakinaraziko zaizkie bisitariei webgunearen eta Museoko beste informazio euskarri batzuen bitartez.
-

-
10. Eraikin barruko dendara sartu ahal izateko, Museoko sarrera eskuratu beharko da alde zurretik.
-
11. Ezin da Museora animaliekin sartu, baldin eta ez badira txakur gidariak eta laguntza-txakurrak.
-
12. Museoak ez dauka lekurik patineteak, trizikloak, bizikleta tolesgarriak eta era horretako garraiobideak gordetzeko. Beraz, ezin da horiekin barrura sartu, ez eta kanpoan utzi ere.
-
13. Ezin da Museora janariarekin edo edariarekin sartu.
-
14. Ezin da erre Museo osoan, ezta aire zabaleko guneetan ere.
-
15. Erakundeari eta gainerako bisitariei zor zaien errespetugatik, ezingo da inor honela sartu:
- Gorputz-enborra biluzik
 - Bainu-jantziarekin
 - Oinutsik
-

Ordutegia

-
1. Museoa irekita izateko ordutegia Cristóbal Balenciaga Fundazioaren Patronatuak onesten du, eta Museoan bertan eta Museoaren webgunean⁷ era argian jakinarazten da.
 2. Museoaren Zuzendaritzak, salbuespen bezala, irekita izateko ordutegiak aldatu ahal izango ditu beharrezkoak iruditzen zaizkion inguruabar jakin batzuetan, eta lehen aipatutako baliabideen bitartez jakinaraziko du.
 3. Aldian behin aretoren bat mantentze-lanengatik edo zerbitzu-beharrengatik itxi behar izanez gero, Museoan bertan eta Museoaren webgunean jakinaraziko da, eta ez du sarreran deskonturik edo sarreraren zenbatekoa itzultzerik eragingo.
 4. Sarrerek leihatilan saltzen dira irekitzeko ordutik aurrera, eta Museoa itxi baino 30 minutu lehenago eteten da salmenta.
 5. Museorako azken sarrera itxiera ordua baino 30 minutu lehenago egin ahal izango da. Taldeak, berriz, 60 minutu lehenago sartu ahalko dira beranduenik.
 6. Museoko dendak bere ordutegi independentea du Museoko ordutegiaren baitan.
-

Segurtasuna

-
1. Bisitariak Museoko langileen jarraibideei jaramon egin beharko diete une oro.

 2. Erabat debekatuta dago eraikinera bertan dauden pertsonen edo erakutsitako ondasunen osotasuna arriskuan jar dezaketen objektuekin edo substantziekin sartzea. Bisitariak une oro Museoaren protokoloak agintzen dituen segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.

 3. Ezin da aretoetan janariarekin edo edariarekin sartu.

 4. Ezin da erakusketa-aretoetan 30 x 30 cm baino handiagoko neurria duten motxila, poltsa eta mailetekin sartu; ez eta punta metalikoa duten aterki eta bastoiekin, bestelako ziztatzeko eta ebakitzeko objektuekin eta abarrekin ere.

 5. Ez zaie Museoan sartzea onartuko nabarmen mozkortuta dauden pertsonen edo estupefazianteen eraginpeko sintomak azaltzen dituztenei.

 6. Museoko aretoen dimentsioak direla-eta, 10 lagunetik gorako lagun-taldeei aldeztu aurretik iristen ari direla jakinarazteko eta erreserba egiteko gomendatzen diegu.

 7. Baldin eta ebakuazioa egin beharko balitz, bisitariak ordenan utziko dute Museoa, bertako langileen jarraibideak betez eta larrialdietarako seinaleei kasu eginez.
-

Bisita

-
1. Bisitariak jokabide egokia izan beharko dute bisitak iraun bitartean, gainerako pertsonen ezertan eragotzi gabe. Bisitari guztien onerako, ahots tonu apalez hitz egin beharko da, eta telefono mugikorra «isilik» moduan izan.
 2. Ezin da obrarik ukitu, langileek hori egiteko adieraziko duten jardueretan izan ezik.
 3. Debekatuta dago Museoko gidak zerbitzuan grabatzea.
 4. Argazkiak egin ahal izango dira, baina, betiere, flashik gabe eta tripode, monopode edo argazki-kamerak finkatzeko beste edozein elementu gabe.
 5. Kontserbazio arrazoiak direla-eta, geletako argia ahula da, 50 lux baino gutxiagokoa. Zuhur ibiltzea gomendatzen da, eta babesteko beira-arasara gehiegi ez hurbiltzea.
 6. Lanak kontserbatzeko arrazoiengatik, erakusketa-aretoak 21°C-ko temperatura konstantean mantentzen dira, eta erakusketa babesteko beira-arasarik gabekoa denean, 19°-koa. Egun beroetan, bisita egiteko soingaineko bat erabiltzea gomendatzen dugu.
 7. Ezin da bisitarien ospakizun pribatuak argazkirik egin (ezkontzak, jaunartzeak, etab.), baldin eta alde aurretik baimenik eskuratu ez bada.
 8. Ezin da jan edo edan, kaferako izkinan izan ezik (coffee corner).
 9. Ezin da gela barruetan lasterka ibili, gelen barruan nahierara oinez ibili edo hurrak heldu batek kontrolatu gabe utzi.
-

Taldeakako bisitak

-
1. Kultura, hezkuntza edo turismo taldeen bisitak erakundearekiko bitartekari bakarra izango den gidari edo irakasle baten zaintzapean egingo dira; hura izango da bere ardurapean duen taldeko kide guztien erantzulea.

 2. Hamar pertsonatik gorako taldeek aurrez erreserbatu behar dute beti sarrera, hala bisita gidatua erreserbatu badute nola beren kabuz bisitatzen badute.

 3. Hamar pertsonatik gorako taldeak ezin izango dira museora sartu museoak zabalik dagoen azken orduan.

 4. Taldeak erreserban finkatutako orduak errespetatu beharko ditu. Berandu iristeak eragina izan dezake bisitaren hasieran eta garapenean, Museoak hala baderitzo.

 5. Talde bakoitzeko kide kopurua 10 eta 20 lagun bitartekoa izango da gehienez, gidaria, irakaslea edo bitartekaria barne, bestelako murrizketak ezartzen diren jarduera jakin batzuetan izan ezik.

 6. Bisita gidatuak ordubete irauten du.

 7. Taldeak bisita ordua baino lehenago iritsi behar dira (10 minutu), aldeztu aurretik egin beharreko izapideak egin ahal izateko.

 8. Museoko aretoetan lasaitasunez eta gainerako bisitarietako begirunez ibili beharko dute taldeetako kideek, ahots tonua apalduz.
-

Zerbitzuak

-
1. Doako armairu pertsonalen zerbitzua dago.
 - Armairuetan ezin da neurri handiko zorrerik sartu.
 - Ezingo da haietan ez janaririk ez edaririk gorde.
 - Museoa ez da haietan gordetako objektuen egoeraren erantzule izango.
 - Objektu guztiak Museoa ixterako jaso beharko dira. Ordurako jaso gabeak galdutako objektutzat joko dira.
 - Armairuko giltza galduz gero, bisitariak bertan utzitako objektu pertsonalen jabea dela egiaztatu beharko du, sinatutako idatzian haiek zehaztasunez deskribatuz.
 2. Museoko elementuak edo gailuak maileguan hartzeko zerbitzua erabiliko duten bisitariak (gurpil-aulkiak, material pedagogikoa, gida-gailuak, eta abar) hitza ematen dute haiek ongi erabiltzeko eta bisita bukatutakoan itzultzeko; mailegua erabili bitartean, berme moduan Nortasun Agiri Nazionala uzteko eskatu ahal izango zaie erabiltzaileei.
 3. Museoak plaza mugatuko bisita gidatu doakoak programatzen ditu asteburuetan eta uztaileko nahiz abuztuko egun guztietan, eskatu ahalako ordutegian. Bisita horietan parte hartu ahal izango dute sarrera erosita bisitarako Museoan bertan izena eman duten pertsona guztiek, taldeko kide kopuru gehienekoa osatu bitartean.
-

Ezereztea eta uko egitea

-
1. Txartel-leihatilan edo webgunean erositako sarrera bat ezeztatzeak edo hori erabiltzeari uko egiteak ez du eskubiderik emango ordaindutako zenbatekoa itzultzeko.
 2. Plaza mugatuak dituzten edo merezimendu-lehiaketa bidez esleitu diren ikastaro edo jardueretan parte hartzea ezeztatzeak edo horri uko egiteak ez du eskubiderik emango ordaindutako zenbatekoa itzultzeko, hilabetetik beherako epean jakinarazten bada. Kontrako kasuan, osorik itzuliko da ordaindutako zenbatekoa.
 3. Plaza-mugarik ez duen edo modu eskusiboan erreserbatu den ikastaro edo jarduera batean parte hartzea ezeztatzeak edo horri uko egiteak eskubidea emango du ordaindutako zenbatekoaren % 100 itzultzeko, 15 egun lehenago jakinarazten bada; zenbatekoaren % 50 itzultzeko, 7 egun lehenago jakinarazten bada, eta % 30 itzultzeko, 48 ordu lehenago jakinarazten bada. Hortik beherako epean egindako jakinarazpenetarako, ez da itzulketarik egitea aurreikusten.
-

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

